

## SECCION AMENA

## B E A R R A .

—Astochuakiñ ua  
Chomiñ egur billa  
basora.

—Ni bakarrik?

—¡Aušendek mutilla!  
matrakarekiñ beti:  
¿ez dek aitu Chomiñ  
esaten diatela  
astochuarekiñ?

—Bañan jartzeko sortak  
astocho gañian  
norbait biardet jauna  
nik aldamenian.

—Utziditzak aitzeki  
ta kezka chatarrak.

—¿Zeñek lagunduko dit?

—¿Lagundu? Bearrak.

. . . . .  
—Emen naiz egurrekiñ  
izarditurikan

egiñik lan guztiya  
bakar bakarrikan.

Gogotik ibildurik  
ingurub' ayetan  
agertu ez da iñor  
nere begiyetan.

Zintzurra larruturik  
ojuka ¡Bearra!  
lagundu nazak, orla  
¿zenbat deadarra!

—Ta sortak jasotzeko  
gañi gañez indarrak  
¿nork eman dizkik bada?

—¡A jauna! Bearrak.

MARCELINO SOROA.